


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,4 igo dira 2021eko abuztuan aurreko hilaren aldean

Aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (2021eko abuztua, 2020ko abuztuarekin alderatuta), kostuak % 3,3 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,4 igo da 2021eko abuztuan, aurreko hilaren aldean. Urtetik urterako terminoetan, kostuak % 3,3 igo dira.

Etzegintzaren sektoreko kostuak % 0,5 igo dira hilabete artean, eta Obra Zibilekoak % 0,3. 2020ko abuztuaren aldean, prezioak % 3,3 igo dira Etzegintzaren kasuan eta % 3,4 Obra Zibilarenean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren, 2021eko uztailaren, aldean, **lehengaien** kostuak % 0,6 igo dira, eta **eskulanaren** kostua, berriz, egonkor mantendu da (% 0,0). Urte arteko terminoetan, lehengaiak % 3,8 igo dira, eta eskulana % 1,9.

Etzegintzaren sektoreak % 0,6ko hil arteko igoera izan du bere lehengaien kostuan. Obra Zibilean, berriz, igoera % 0,3koa izan da. Urte arteko bilakaeran, Etzegintzako lehengaien kostuak % 3,7 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 3,9.

Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntzatasak(p). 2021ko Abuztua

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	109,2	0,4	3,3
Eraikinak	109,3	0,5	3,3
Obra zibila	108,4	0,3	3,4
LEHENGAI	108,8	0,6	3,8
Eraikinak	109,1	0,6	3,7
Obra zibila	107,8	0,3	3,9
LAN-ESKUA	110,2	0,0	1,9

Oinarria 2015=100
(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioari dagokionez, 2021eko abuztuan, 2020ko abuztuaren aldean, hazkunderik handienak hauek izan dituzte: *Petrolioia fintzea* (% 29,4), *Metalurgia* (% 27,9) eta *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 10,1). Prezioen urte arteko murrizketa izan duen sektore bakarra *Mineral ez-metalezkoena* izan da: % 2,1 egin du behera.

Urte arteko hazkunde-tasak kontsumitutako lehengaien prezioetan (p). 2021ko Abuztua

	m / m-12
A64 SEKTORIZAZIOA	
04 - Ez-metalezko meak	-2,1
07 - Zuraren eta kortxoaren industria	10,1
10 - Petrolioia fintzea	29,4
11 - Industria kimikoa	9,6
13 - Kautxua eta plastikoa	0,9
14 - Produktu mineral ez-metalezkoak	2,7
15 - Metalurgia	27,9
16 - Metalezko artikulak	4,5
17 - Material elektronikoa	9,8
18 - Material elektrikoa	2,5
19 - Makineriaren fabrikazioa	1,9
22 - Altzarigintza	2,8
24 - Energia elektrikoa eta gasa	7,2

Oinarria 2015=100
(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62